

Tokiko Ekonomi Garapena **EZAGUTZAREN KUDEAKETA**

Local Economic Development
KNOWLEDGE MANAGEMENT

Desarrollo Económico Local
GESTIÓN DEL CONOCIMIENTO



1. Ezagutzaren kudeaketaren estrategia eta teknikak aurreratutako lurraldeetako tokiko

ekonomi garapenaren estrategien alderdi garrantzitsuetako bat dira.

As a Working Paper, it does not reflect any institutional position or opinion neither of EKAI Center, nor of its sponsors or supporting entities.

EKAI Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

GARAIA INNOVATION CENTER, GOIRU 1,A2 MONDRAGON

TEL: 943250104

VITORIA-GASTEIZ 639641457

LEKEITIO 675701785

DURANGO 688819520

E-MAIL: info@ekaicenter.eu

facebook.com/ekaicenter

scribd.com/EKAICenter

2. Jakinarazi dezagun, hori bai, nahiz eta beste posizionamendu batzuk eremu hau tokiko ekonomi garapenaren estrategietan ezinbestekotzat jarri gure ustez ez da funtsezko helburua. Gure ustez, epe luzera, giza balioen kudeaketan aurrerapen txiki bat lortzea garrantzitsuagoa izan daiteke.

3. Noski, ezagutzaren kudeaketarekin erlazioa duten politikak lurraldeko giza balioak ezartzeko eta gauzatzeko tresna garrantzitsu bat izan daitezkeela ahaztu barik.

4. Tokiko garapen ekonomikoaren estrategien ikuspuntuaren arabera, ezagutzaren kudeaketa prozesuak bere prozesu estrategiko eta bere betetzearen arabera aztertu ahal dugu.

5. Logikoki, tokiko azterketa estrategikoaren prozesua, berez, ezagutzaren kudeaketaren prozesua da. Informazioaren igorpen edo antolaketa erabiltzeko aukera ematen du edo udalerriko edo eskualdeko garapen ekonomikoa bultzatzeko funtsezko erabakiak hartzeko informazioa egiaztatzeko aukera ematen du.

6. Estrategien betetzearen arabera, ezagutza lortzeko ekintzen artean, bere antolaketa edo ezagutza berriaren kudeaketa eta eraketa bereizi ditzakegu.

7. Noski, jakina denez, ezagutza giza adimena dutenen berezko jardura da eta gizakiak dira bere protagonistak. Tokiko estrategiek inguruak sortu ditzakete edo ulermena, ezagutzaren eraketa edo igorpena erraztu dezakete, baina pertsonak dira beti, halabeharrez, ezagutzaren kudeaketan funtsezko ekintzen arduradunak.

8. Tokiko garapen estrategiak egiterako orduan, askotan prozesuaren garapenean garrantzitsuagoa da zeinekin egingo den lan jakitea zein erakunderekin baino. Hitz egiten ari garen prozesu estrategikoan udalerriko edo

eskualdeko interes orokorrera bideratuta dagoela kontutan izanik, horretan parte hartzeko motibazioa –eta eraginkortasuna- pertsona bakoitzaren balio eta ezaugarriekin egon daiteke lotuta partaide den erakundearekin baino.

9. Duela gutxi nabarmendu da, tokiko estrategien arabera, hausnarketa estrategikoaren muina funtsean enpresa-ezagutza izan behar dela.

10. Abiatze hau egokia da baina –gure ikuspegitik- zati batean bakarrik. Ikuspuntu hauek funtsezko zeregina eta epe luzera garapen ekonomikoaren ekintza publikoa gutxien dituzte.

11. Enpresa-ezagutza funtsezkoa da, adibidez, enpresa-proiektu berriak antzematerako orduan, gaur egungo enpresen beharrak ezagutzerako orduan, etab.

12. Baina eskualdeko garapen ekonomikoaren strategiaren ekintzek onartzen duten erakunde publikoak zuzenean estutasunean jartzen dituzte eta zeharka agente pribatuak. Erantzukizun publikoa ezinbestekoa da eta baita, logikoki, prozesua bultzatzeko agente publikoen irizpideak, egonezinak proposatzea, agente pribatuen proposamenak baloratzea edo orekatzea, etab.

13. Enpresa-agenteen esku dagoen ezagutzari lehentasuna ematea ulergarria den logika bati erantzun ahal dio, adibidez, agente publikoek tokiko estrategiak lehen aldiz egiten dituztenean. Edo enpresekin erlazio esperientzia nahikorik ez dagoenean eta, beraz, helburu garrantzitsu bat prozesua modu egoki batetan aurrera eramateko komunikazio bide hauek bultzatzea da.

14. Udalerriko edo eskualdeko enpresei ezagutzaren kudeaketaren protagonismoa leporatzea ahultasun politiko edo arduradun

As a Working Paper, it does not reflect any institutional position or opinion neither of EKA Center, nor of its sponsors or supporting entities.

EKA Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

GARAIA INNOVATION CENTER, GOIRU 1,A2 MONDRAGON

TEL: 943250104 VITORIA-GASTEIZ 639641457

LEKEITIO 675701785 DURANGO 688819520

E-MAIL: info@ekaicenter.eu

facebook.com/ekaicenter

scribd.com/EKAICenter

publikoen ahalmen tekniko ezaren ondorio bat izan daiteke ere.

15. Dena den, gure ustez, argi dago kudeatu behar diren ezagutza eremuak agente publiko eta pribatuetan dauden ezagutzen mix bat izan behar dela.

16. Tokiko garapen ekonomikoaren estrategia guztietan bezala, ezagutzaren kudeaketa ekintzak eta ezagutzaren kudeaketaren azpiegiturak edo plataformak bereiztea garrantzitsua da.

Bere ondorio biderkatzaileagatik, ahal diren aukeren hautematea eta ezagutzaren azpiegiturak aurrera eramatea tokiko garapenaren estrategien funtsezko helburua da.

17. Tokiko garapen ekonomikoaren eremuan ezagutzaren kudeaketaren azpiegiturak, hain zuzen, tokiko estrategiarekin zuzenean lotuta dagoen ezagutzatik aurrera abiatu daiteke eta, lehenengo, erantzukizun hau duen kudeaketa-unitate baten izendapen edo eraketa. Ekintza hau administrazio sail zehatz bati esleitua egon

daiteke modu egonkor batetan edo garapen agentzi batera, gure inguruan ohikoa den bezala.

18. Ezagutzaren kudeaketa azpiegiturak dira ere, logikoki, ikastetxeak, ikerguneak edo antena teknologikoak.

19. Azkenik, Interneten garapenak informazioaren jasotzea eta igorpena kostu txikitzen erraztu du. Agente publiko edo pribatu batzuk edo besteen laguntzarekin, interneteko plataformak eskualdeko garapen eremuetan ezagutzaren kudeaketa bultzatzeko tresna eraginkorrak izan daitezke.

20. Azkenik, askotan nabarmendu den bezala, enpresa proiektu berriak aurrera eramateak berez ezagutzaren kudeaketaren "azpiegitura" izaera izan dezake, balio, heziketa eta lurraldeko hornidura teknologikoaren gain dituzten zeharkako ondorioak direla eta. Jakina, enpresa ezarpen berrien azpiegitura izaera edo izaera estrategikoa hauen neurriarekin dute harremana baina baita sektorearen jarduerarekin eta enpresa bakoitzaren ezaugarri zehatzekin ere.

As a Working Paper, it does not reflect any institutional position or opinion neither of EKAI Center, nor of its sponsors or supporting entities.

EKAI Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

GARAIA INNOVATION CENTER, GOIRU 1,A2 MONDRAGON

TEL: 943250104 VITORIA-GASTEIZ 639641457

LEKEITIO 675701785 DURANGO 688819520

E-MAIL: info@ekaicenter.eu

facebook.com/ekaicenter

scribd.com/EKAICenter